09. Plaza espazio publiko gisa

1. Sarrera. Plaza zera da: Hiri-lurzoruko espazio publikoen sareko elementu zabala eta itxia. Bertan hiriko potereak adierazten dira: Erlijiotsua, zibila, ekonomikoa eta fisikoa (Sienako adibidea). Hasierako plaza batzuk pribatuak ziren (Babilonia eta Beijingeko adibideak). Kalea bezala, plaza ere eszenatokia da.. Plaza euskal inkontziente kolektiboan: Publikotasunaren sinonimo gisa (herri-kirol eta bertsolaritzaren eszenatokia); merkatu edo azokaren sinonimo gisa ere erabilia. Adibideak: Idi-probak Astigarragan; Bertsoak balkoitik balkoira Zaldibarren; Ordiziako plaza edo azoka.

2. Plazak, hiritarren topagunea izanda, historikoki bi paradigma ezberdin jarraitu ditu: Greziako Agora eta Erromako Foroa. Agoran eraikinak proiektatzen dira eta espazioa hondarra besterik ez da, eraikinen artean geratzen den emaitza, irekia da (Grezia klasikoan, behinik behin; Garai Helenistikoan gauzak aldatzen dira); Foroan espazioa proiektatu eta itxi egiten da. Eraikinak espazioaren menpe diseinatzen dira. Adibideak: Olinpiako esparru erlijiotsua; Atenasko agora (K.a. IV.an eta K.a. II.an); Miletosko agora (K.a. II.an); Assosko agora; Timgadeko foroa; Silchesterreko foroa; Erromako erresuma-foroa.

3. Erdi Aroan hiru plaza bereizten dira: Elizako plaza, udaletxeko plaza eta merkatuko plaza (askotan, harresietatik kanpo). Adibidea: Torun, Polonia (1.231an eta 1.641an); Monpazier bastida, Lapurdiko Bastida; Bastidetako udaletxe-merkatu estaliak: *Halle*-ak.

4. Camillo Sitteren "errezetak" ("*Hirien eraikuntza oinarri artistikoen arabera*", 1.889koa):
    - Enparantzaren zentruak hutsik egon behar du. Adibideak: Iturriak Nuremburg, Rotenburg eta Sienako plazetan; Monumentuak Signoria plazan, Firenzen, eta San Antonio aurreko plazan, Padovan; Garaipen Arkua Parisen eta Erromako foro errepublikarrean; Obeliskoak Karnaken eta San Petri plazan.
    - Enparantzak itxia izan behar du (bestela ez da plaza, bidegurutzea baizik). Adibideak: Uffizi portikoa, Firenze; Kerkboog, Nijmegen; Hofburg, Wien; Garnierren opera aurreko bidegurutzea; Kapitolio plaza, Erroma.
    - Enparantzak proportzioa behar du. Adibideak: Notre Dame aurreko plaza, Paris; Piazza Navona, Erroma; Milaneko Duomoaren plaza; Panteoiaren plazatxoa, Erroma.
    - Enparantza multzoak ederrak dira. Adibidea: Salzburgo; San Marcosko piazza eta piazzeta, Venezia.
    - Plaza irregularrak ederrak dira. Turbina formako plazak ederrak dira.

5. Euskal Herriko frontoi plazak, gureak diren hirigintza-altxorrak (Lapurditik Bureba eta Errioxa Garaiaraino). Plaza ixteko balio duen elementu funtzionala.
    - Getaria (hiriko atean); Pasai Donibane (udaletxearen fatxadan); Luhuso, Lapurdi (elizarekin batera espazioa mugatuz); Arraitz, Iratxeta eta Urroz, Nafarroa (elizarekin hiri-espazio esanguratsuena eratuz).